



ruper ordorika kantuok jartzen ditut

Musikan hasi zen lehen momentutik, oso nortasun berezia erakutsi zuen Ruper Ordorikak.

Era berean, barrukoak goldatzeari hainbat aldiz ekin dio urte hauetan musikari ofatiarrak. Hori bai, betiere ongarririk exkisitoenak botaz: ahozko europar tradizioarekin batera, erritmo oinarri sendoak (rock eta soul-etik datozenak)... Jazz sonoridade hipnotikoekin batera, denok abesteko moduko melodia destilatuak (pop estiloan kantu intenporalak egin daitezkeela primeran erakutsiz).

Horregatik, aurreko diskoaz (Hurrengo Goizean) zera bota genuen: behin eta haraino ailegatuta, handik aurrerantz "nahi zuena" egin zezakeela Ruperrek.

Baina bera ezagututa... bagenekien hainbatgarrenez harrituko gintuela. Eta halaxe gertatu da, "Kantuok jartzen ditut" disko honetan ez baitago inolako treguarik.

Hamabi kantu berri... eta "bestelako" disko bat. Non enperadorea bera ez ezik, baita zaldiak ere, bizkorturik ageri zaizkigun.

Ruper Ordorikaren azken lau diskoetan grabatu duen Ben Monder gitarrajolea hemen da berriro, hiru diskotan ageri den Keny Wollesen baterijolea bezala, zein estreinakoz Jonathan Maron baxujolea (guztiak New Yorkeko inprobisazio giroko musikariak).

Doinu eta hitzen arteko "tentsio" ezezagun baten bila joan dira orain... eta baita aurkitu ere!

Doinuak borobilak dira... baina baita zorrotzak ere. Hitzak oso zaindu ditu egileak... eta horregatik oihartzunak dakarzkigute, ahots ugaritasuna.

Goazen disko organiko honen zainetan korritzera. Sar gaitezen sonoridade mugikor hauetan.

Abiaduraz gozatuz, elektrizidadearen ziztada lagun.

Goazen ere "txoke" egitera zenbaitetan... Euskaldun sentitu nahiak altzarazten dizkigun paretak inguratuzera, igotzera, zulatuzera.

Hemendik aurrera bidaide ezinhobeak izango ditugulako doinu zein hitz berri hauek. Gure zeharkaldia pertsonala ez ezik kolektiboa ere badelako.

Eta kantuok jarriz... horra hor Ruper Ordorikak gutaz egiten dakien "apur handia".

Fermin Etxegoien

RUPER ORDORIKA KANTUEGILEA eta KANTARIA, zenbait disko burutu ditu:

"HAUTSI DA ANPHORA", 1980 Elkar C.D.

"NI EZ NAIZ NORUEGAKO ERREGE", 1983 Elkar C.D

"BIHOTZERREAK", 1985 Elkar C.D.

"H.BENGOA - INVENTARIUM" B. Atxagarena. 1988 Elkar Cassette.

EZ DA POSIBLE", 1990 Gasa-Wea C.D.

"BILDUMA BAT", 1992 Elkar C.D. Lehen 3 diskoen hautaketa.

"R.ORDORIKA & Mugalaris", 1992 Emak Bakia Mini C.D.

"HIRU TRUKU", R.Ordorika, J. Tapia, B. Martinez 1994 Nuevos Medios C.D.

"SO 'IK SO' ", 1995 Nuevos Medios C.D.

"HIRU TRUKU 2", R.Ordorika, J. Tapia, B. Martinez 1997 Nuevos Medios C.D.

"DABILEN HARRIA", 1998 Nuevos Medios C.D.

"GAUR", 2000 Esan Ozenki C.D. zuzenean.


"HURRENGO GOIZEAN", 2001 Metak. CD.

"RUPER ORDORIKA", 2002 Recopilación. Nuevos Medios CD.

"KANTUOK JARTZEN DITUT", 2003. Metak CD.

PRODUKTOREA zenbait grabaketetan:
Hertzainak, Maurizia Leon eta Basilio, Emilio Cao, Tapia eta Leturia...

Zenbait EKITALDI LITERARIOETAN partaide, Bernardo Atxagaren gidaritzapean, besteak beste:
"Henry Bengoa, Inventarium" eta "Lezio berri bat ostrukari buruz".



Ref: M039CD

Azaleko Informazioa:

Bi urte beteko dira Hurrengo Goizean lana kaleratu eta aurkezpen birari ekin zionetik. Orduetik hona hainbat zuzeneko emanaldi egin ditu musikariak bere talde den Mugalarisekin batera. Bada, azken hilabetetan zuzenekoak apur batean alboratu eta konposizio lanetan jardun du, honako kantu sorta zoragarria bilduz, aurreko lanen ildo jarraiki baita muga berrietarako norabidea erakutsiz.

Iraupena: 50:36

Kantu kopurua: 12

Kantuen Izenburuak:

- 1 Haize goxoarena 4:11
- 2 Zaindu maite duzun hori 3:44
- 3 Mila legoa 4:00
- 4 Esan gabeko arrazoia 3:28
- 5 Ene gogoan zena 3:26
- 6 Iratzarri 3:28
- 7 Kantuaren gauza galdua 6:31
- 8 Ahal bezala 4:12
- 9 Gauza erabiliak 3:13
- 10 Euria lagun 4:34
- 11 "Done ezer ezdaezinezko" 4:35
- 12 Lagun erratuena 3:56

Partaideak:

jonathan maron bax.elekt.
ben monder gitarrak
kenny wollesen bateria
rupe ordorika ahotsa. Git.

Grabaketa tokia:

"Katarain" Azkarate (EH)

Ekoiilea:

Jonan Ordorika

Mastering:

Steve Fallone

Promo material eskuragarria:

- Kartelak
- Argazkiak
- Postalak
- Bideoklipa

Informazio zabalagoa:

www.musikametak.com
www.ruperordorika.com

Argitaratze Data:

2003/10/22